

Argindarra

Amaierarik gabeko igoeraren ajeak

Azken hilabeteotan Iberiar Penintsulako handizkako merkatuan argindarraren prezioa etengabe ari da gora egiten. Urriaren 5ean, historian lehen aldiz, orduko megawattak (MWh) 200 euroko langa gainditu zuen, eta ordutik muga horren gainetik dago prezioa. Zer dela eta aldatzen da hainbeste handizkako merkatuan argindarrak duen prezioa? Zergatik handitzen dira batzuen fakturak, eta beste batzuenak ez? Eta zer interes dute konpainia elektriko multinazionalak honetan guztian?

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA  HODEI TORRES

Merkatu elektrikoa zinez da konplexua, eta badaude etengabe aldatzen diren elementu batzuk, Iberiar Penintsulan behintzat –praktikan Portugaleko eta Espainiako Estatuko merkatuak bat eginda daude elektrizitatearen sektorean eta Hego Euskal Herria horren barruan dago; Ipar Euskal Herria, aldiz, Frantziako Estatuaren merkatu barruan sartzen da, ikusi 27. orrialdeko koadroa-. Elektroiak energia produkzio gune nagusietatik gure etxeetara iristeko lau prozesu edo urrats nagusi daude: produkzioa, garraioa, banaketa eta komertzializazioa, eta etapa bakoitzean hainbat aktorek hartzen du parte.

Hala ere, merkatu elektrikoak egun duen egitura oso ezberdina zen duela urte batzuk. Zehazki, 1997. urtean eman zen aldaketa nagusia. Urte horretara arte, merkatua estatuak arautzen zuen, eta Espainiako Gobernua zen elektrizitatearen prezioa ezartzen zuena. José María Aznar buru zuen gobernuak, 1997. urteko azaroaren 27an, Sektore Elektrikoaren 54/1997 Legea onartu zuen; lege horren helburu nagusia merkatu elektrikoa liberalizatzea zen, konpainia publikoak pribatizatu eta espoliatuz. Horrela sortu zen aurrez aipatutako gaur egungo egitura.

Komertzializazioaren fasea izan zen berrikuntza nagusienetako bat, horren aurretik enpresa elektrikoak fase guztiez arduratzen baitziren: produkzioaz, garraioaz eta salmentaz. Energiaren merkatura “lehiakorragoa” izateko helburuarekin, energia produzitzen ez zuten enpresa batzuk energia saltzen hasi ziren, eta bezeroen kontsumo aukerak asko handitu ziren. Gaur egun, adibidez, ia 300 enpresa merkaturatzaile daude Espainiako Estatuan, nahiz eta hiru enpresak (Iberdrola, Endesa eta Naturgy) erabiltzaileen %90 barnebildu. 1997tik hona, enpresa merkaturatzaile horiek sortzaileei energia erosten diete, ostean familiei eta enpresa txikiei nahi duten moduan saltzeko.

BI MARRA GURUTZATZEN DIREN MOMENTU HORI

Kate horretan energiak egiten duen bi-dearen lehen urratsa sorrera bera da: energiaren produkzioa. Nahiz eta energia merkaturatzen duten zientoka enpresa egon, energiaren produkzioa askoz gutxiagoren esku dago. Energia iturri mota guztiak barnebilduta, 2017an Iberiar Penintsulan produzitu zen energiaren %80 bost enpresa nagusik sortu zuten: Iberdrola (%29,3), Endesa (%22,7), Gas Natural Fenosa (%15,9), Viesgo (%7,6) eta Hidroeléctrica del Cantabrico (%4,4).

Enpresa horiek bi motako merkatutan saltzen dute energia. Aldebiko merkatuan, energia produzitzaileek haien enpresaren bidez merkaturatzen edo industria handiekin zuzenean negoziatzen dute, eta epe luzeko kontratuak egiten dituzte. Nahiz eta sistema konplexua izan, negoziaketa eta salmenta askoz zuzenagoa da merkatu horretan.

Hortik kanpo, *spot* edo *pool* merkatuan elkartzen dira egunero energia produzitzaile handiak eta enpresa merkaturatzaileak, eta hurrengo eguneko ordu bakoitzean energiak izango duen prezioa adosten dute.

Algoritmo-sistema batzuen bidez, merkaturatzaile bakoitzak hurrengo eguneko ordu bakoitzean bere bezero guztiek egingo duten energia kontsumo aurreikuspen bat egiten du, eta zenbatean erosteko prest dauden adierazten diote merkatuaren kudeatzaileari; hau da, OMIEri (Iberiar Penintsulako Merkatu Energetikoaren Operatzailea). Bestalde, energia produzitzaileek zenbat energia sortuko duten eta energia iturri bakoitzak zenbat MWh emango dituen kalkulatzeko dute; izan ere, energia iturri batzuk ezegonkorragoak dira, faktore batzuen menpe baitago haien errendimendua; esaterako, energia fotovoltai-koarena eta eolikoarena.

Argindarraren igoera dela-eta agintariek daramatzaten politiken aurrean mobilizazioak azkartu egin dira azkenaldian. Urrian Bilboko auzo elkarteek eta Ekologistak Martxan taldeak deituriko manifestazioan dozenaka lagun elkartu ziren Iberdrola Dorrearen ondoan (irudian). Urriaren 8an, aldiz, *Deskonektatu elektriketatik!* lelopean itzalaldi masiboa antolatu zuten Llotja De Marreko adierazpeneko alderdi sinatzaileek.



Bi aldeek haien eskari eta eskaintzak egin ostean, bi prezioak grafiko batean jartzen dituzte, eta bi marrak gurutzatzen diren puntua da energiak izango duen salneurria. Aurtengo uztailaren 6ra arte Iberiar Penintsulako merkatuan orduko megawattak gehienez 180 euroko prezioa zuen handizkako merkatuan, baina Bruselaren aginduz muga horiek zabaldu dira, eta orain orduko megawattak gehienez 3.000 eurotan saldu daiteke.

PREZIO GARESTIENAREN ATZETIK

Merkatu honen berezitasuna, baina, prezioa ezartzerako orduan dago; izan ere, *pool*ak sistema marjinalista bidez ezartzen du energiaren prezioa; hau da, ordu horretan saldu den energia kantitate guztiari prezio garestiena ezarriko zaio.

Demagun eguzki eta haize asko egin duen egun bat izan dela; zentral nuklearrak MWh 0 euroan saldu dute produkturiko energia; eguzki energiaren prezioari 10 euro/MWh jarri diote, energia eolikoari jarri dioten bera, eta energia hidroelektrikoa 40 euro/MWh-ean saldu dute. Hala ere, iturri hauen bidez lortutako energia ez da nahikoa, eta gas natural bidez funtzionatzaren duten ziklo konbinatu zentralak martxan jarri behar

izan dituzte. Gasaren prezioa altua denez, eta CO2 isurketa isunak ordaindu behar dituztenez, energiaren prezioa 200 euro/MWh-ean ezartzea erabaki dute. Hau dela eta, egun horretan produktutako MWh guztiak 200 eurotan salduko dira, nahiz eta batzuen produkzioa merkeagoa izan.

Enpresa elektrikoak euren boterearekin jolasean hastean, gobernuak neurri sinbolikoak baino ezin ditu hartu

Hainbat faktorek eragiten du elektrizitatearen prezioa egunez egun horrenbeste aldatzea. Energia berriztagarri batzuk, eolikoa eta fotovoltaikoa, esaterako, eguraldiaren menpe daude, eta haize gutxi egiteak edo hodei asko egoteak iturri horien bidez energia gutxiago produktutzea eragiten du. Horrek

energiaren prezioa igoarazten du ezinbestean, iturri merkeenak baitira, energia nuklearrarekin batera.

GASAREN TRANPA

Gas naturalaren prezioaren mundu mailako garestitzeak ere eragin handia du energiaren prezio orokorraren igoeran (ikusite aste honetako Net Hurbil saila, horri buruz gehiago jakiteko). 2019. urtean Espainiako Estatuan produzitu zen energiaren %31,9 gas naturalaren errekuntzatik eratorria zen, bi sistemen bidez: ziklo konbinatua eta kogenerazioa. Bestalde, erregai fosilak erabiltzen dituzten energia produktzaileei CO2 isurketa isun eta zergak handitu dizkiete, eta horrek elektrizitatearen prezioa handitzea ekarri du.

Azkenik, energia hidroelektrikoa produzitzen duten enpresak ere handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa handitzen ari dira azken hilabeteotan. Energia hidroelektrikoa gehienbat Iberdrolaren esku dago, eta zentral hidroelektrikoak amortizatu gabe daudela adierazi dute. Bestalde, kanon bat ordaintzen dute teknologia horren bidez energia produzitzen duten enpresek, eta horrek prezioa igotzea eragin du.

Zein aberasten da argindarraren negozioarekin?



Oligopolioaren etekinak

Merkatu elektrikoaren ia %90eko kontrolarekin, Espainiako Estatuan **Endesa, Iberdrola eta Naturgy** enpresak dira jaun eta jabe sektorean. **La Directa** hedabideak emandako datuen arabera, oligopolio horrek azken bi urteetan **9.600 milioi** euroko etekin netoak izan zituen eta 2021eko lehen seihilekoan jadanik 3.160 milioi euro zituen irabaziak. Ordu bakoitzeko 720.000 euro, hain zuzen.

Urtarril honetan elektrizitatearen oligopolioak 2020an irabazitako 6.200 milioi euroko dibidenduak banatu zituen bere akziodunen artean, batez ere nazioarteko inbertsio funtsen eskaeren ondorioz.



Inbertsio funtsak gose

BlackRock, Qatar Holding LLC, Norges Bank, The Vanguard Group, Fidelity Investments... Mundu mailako inbertsio funts handienak Iberiar Penintsulako merkatu elektriko enpresen akziodunen artean ageri dira.

Baina muturra sartu dutenen artean bi nabarmenak dira: Sidneyko **Macquarie** eta New Yorkeko **BlackRock**. Lehenak Santandergo Viesgo-EDP argindar merkaturatzaile erraldoiaren akzioen %25 dauka; bigarrenak Iberdrolaren ia %6 bereganatu du eta EDPren (Hidrocantábrico) beste hainbeste. Zorraren eta Globalizazioaren Behategiko (ODG) Alfons Pérezek **La Directa**-ri esan dioenez, funts horien sarrerak "hiperazelerazio dinamika" bat ekarri du etekinak lortu nahian.



Ate birakariak

Sektore elektrikoan babestu izan dira Espainiako Estatuan goi karguak eta ardurak izan dituzten politikari asko eta asko. Horietako batzuk aipatzearren, ezaguna da **Felipe González** Espainiako presidente oihia Naturgyren kontseilari izan zela 2010-2015 urteen artean; **Luis de Guindos** Espainiako Ekonomia ministro izandakoa Endesako kontseilari izan zen hiru urtez (2009-2011); eta **Juan Mari Atutxa** Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu-ohia, Iberdrolakoa 2010 eta 2016 artean.

Honek guztiak argindarraren prezioan duen eragina garbi ikusi da 2021eko urtarrileko bi data zehatzetan. Hilabete hasieran *Filomena* ekaitza sartu zen Iberiar Penintsulan, eta tenperaturen beherakadak argindarraren eskaria handitzea ekarri zuen. Bestalde, iturri berriztagarrietatik lortutako argindarra murriztu egin zen, eta erregai fosilen bidezko energia produkzioak, garestienak, gora egin zuen. Bi faktore horiek argindarraren prezioa handitzea eragin zuten, eta urtarrilaren 8an, eguerdiko hamabietan, MWWha 110,75 eurotan ezarri zen, OMIE-ren datuen arabera. Hilabetearen azken asteburuan eguraldiak hobera egin zuen, eta energia berriztagarrien produkzioak gora egin zuen. Asteburua izanda, eskaria murriztagoa zen, eta horrek prezioa asko merkatzea eragin zuen. Urtarrilaren 30ean, MWWha 1,95 eurotan ordaindu zen eguerdiko hamabietan.

Laburbilduz, Iberiar Penintsulan energiaren prezioa oso puztuta dago, eta energia iturri merkeenak prezio oso altuan ari dira kobratzen MWWha. Hau dela eta, Espainiako Gobernuak CO2a isurtzen ez duten teknologiak estatuari dirua itzultzea behartu dituzte. Honen arazoa energia merkatzean dago; izan ere, elektrizitatearen prezioa jaisten denean, iturri berriztagarriak irabazten dutena baino diru gehiago itzuli behar diote estatuari, eta horren aurrean produkzioa gertatzea erabakitzen dute; zehazki, urriko lehen asteburuan gertatu zen hori.

ZERGATIK GARESTITU DA NIRE FAKTURA, ETA BIZILAGUNARENA MERKATU?

Aurten handizkako merkatuan elektrizitateak izan duen etengabeko igoera etxe askotan nabaritu dute, baina beste batzuetan ordea, ez. Hau Espainiako Estatuan dauden bi faktura motengatik gertatu da: erregulatua eta merkatu librekoa. Lehena, erregulatua edo PVPC (kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa), potentzia orduko 10 kilowatt baino baxuagoa duten kontsumitzaileek kontratatatu dezakete; hau da, familiariek eta enpresa txikiek. Espainiako Gobernuak “erreferentziazkotzat” jotzen dituen bost enpresa merkaturatzaile nagusiak behartuta daude kontratu mota hori eskaintzera. PVPCa kontratatuta duten bezeroek handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioak jasaten dituen aldaketak nabaritzen dituzte fakturretan.

Bestalde, merkatu libreko kontratuetan urte osorako prezio bat finkatzen da merkaturatzailearen eta kontsumitzailearen

Frantzia nuklearrak indarrean

Gasaren igoerak, CO2aren gaineko isunek eta beste hainbat faktorek Frantziako Estatuan ere ekaitz perfektua ekarri dute argindarraren krisi bat dagoela esateko. Herritarren patrika –Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako euskal herritarrena ere bai– gogor ari da nozitzen. Apirilean merkatu elektrikoaren prezioek errekorra ondu zuten eta irailean Emmanuel Macronen gobernuak neurriak iragarri zituen gasaren eta argindarraren igoera saihesteko. Jean Castex frantziar lehen ministroak iraila amaieran azaldu zuenez 2022ko otsailean argindarra %10 igotzea aurreikusten zuten, eta igoe-ra hori gehienez %4ra mugatzeko mekanismoak ezarriko dituzte.

Frantziako Estatuan handizkako merkatuaren eragina ez da hainbeste igartzen kontsumitzaile txikien fakturan, elektrizitate produkzio ere-

dua oso desberdina delako, zentral nuklearren energia oinarriturik –kontsumitzen duen elektrizitatearen %80 hortik ateratzen du Frantziak–. Hala ere, gasaren prezioaren gorakada desorbitatuak, beste neurri batean bada ere, argindarra garestitzea ekarri du. Horren aurrean, gasaren eta argindarraren prezioak deslotezko ahalegina egin du Eurotaldeko bileretan: “Frantzia elektrizitate deskarbonizatua dugu zentral nuklearrei esker”, adierazi zuen Bruno Le Maire Ekonomia ministroak.

Nuklearrenganako Frantziaren fede itsu hori oso nabarmen gertatzen ari da berriz ere, mundu erdia astintzen ari den energia krisiarekin. Macronek 30.000 milioi euro bideratuko dizkio lobby nuklearrari, zati bat zentral txikiak eraikitzeko. Fukushima gertaturikoa ahaztu ahala piztu da nuklearren eztabaida.

artean, eta *pooleko* aldaketak ez dira fakturretan islatzen. Enpresa handi batzuek mota honetako kontratuak dituzte, eta MWWharen prezioa asko handitu denez, batzuei kontratuak berritzea eskatu diete merkaturatzaile nagusiek, eta beste batzuei kontratua aldeakartasunez amaitu diete. Gainera, fakturako zergak murriztu egin direnez, merkatu libreko kontratua duten bezero askok gutxiago ordaindu du azken hilabeteotan, baina kontratua berritzerako orduan merkaturatzaileek prezioak igoko dituzte.

Espainiako Merkatu eta Lehiakortasun Komisioaren datuen arabera, 2020. urtean 10,7 milioi bezerok zuten PVPC motako kontratua, eta 2014. urtean, berriz, 14,5 milioi ziren. Enpresa merkaturatzaileen publizitate kanpainen eragina da hau gehienbat, eta familia askok PVP-Ca utzi eta merkatu libreko kontratua igarotzea eragin du horrek.

Elektrizitatearen fakturan, baina, energiaren kostuaz gain beste kontzeptu asko daude. Horietatik lau zehaztu ditzakegu: energiaren prezioa, sistemaren kostuak, arauzko kostuak eta zergak. Lehena merkatuaren operatzaileari ordaintzen zaio, OMIEri; bigarrena, sare elektrikoak dituen eta haien kudeaketaz arduratzen den





EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

enpresari: Espainiako Sare Elektriakoari (REE); hirugarrena, banaketa sareak dituzten enpresei ordaintzen zaie –Hego Euskal Herriaren kasuan, Iberdrolari–; eta laugarrena, estatuari. Bosgarren kontzeptu bat ere badago, enpresa merkaturatzailen irabazi tarte adierazten duena.

Kontzeptu bakoitzaren barruan hainbat kostu daude, baina garrantzitsuenak eta aldatzen ari direnak zergak dira. Bi zerga daude argindarraren fakturan: BEZa eta IEEda (Elektrizitatearen Zerga Berezia). Handizkako merkaturako prezioak puztuta daudenez, Espainiako Gobernuak dirua itzultza behartu ditu energia produzitzailak, eta horrek aukera eman dio fakturako zergak jaisteko. BEZa %21etik %10era jaitsi dute, eta IEEda %5etik %0,5era. Hau dela eta, lehen esan bezala, merkatu libreko kontratua duten bezero askok faktura murriztu zaiela nabaritu dute.

BERRIZTAGARRIEN KONTRAESANA

Iturri berriztagarriak, nahiz eta produkzio ezegonkorrekoak izan, merkeagoak eta garbiagoak dira –horiek produzitzeko ereduak ere ingurumen arazo ugari eragiten baditu ere, talde ekologistek sarritan azaldu dutenez–, baita seguruagoak ere. Europako herrialdeak pausua ematen ari dira berriztagarriak energia iturri nagusiak izan daitezen: 2020. urtean produzitu zen energiaren %44 iturri berriztagarrietatik eratorria izan zen, 2019. urtean baino %12,8 gehiago. Datu hori esanguratsua badirudi ere, engainagarria da, pandemia dela eta energia eskaria askoz urriagoa izan baitzen; aurten ehuneko horren azpitik egongo da berriztagarrien portzentajea. 2019. urtean, adibidez, aurreko urtearekin alderatuta behera egin zuen energia

berriztagarrien produkzioak. Bestalde, nahiz eta 1997. urtetik aurrera energia elektrikoaren merkaturak liberalizatu, enpresa elektriko nagusiek kontrolatzen jarraitzen dute merkaturak, eta haien erabakiek guztiz aldatzen dute panorama.

Krisialdi energetiko honetan, enpresa elektrikoak eta gobernuako agintariak egin dituzte herritarrek erantzule nagusi. Espainiako Estatuaren kasuan arduradun politikoek ezer gutxi egin dezakete 1997ko liberalizazioaren ostean, egiturazko erabaki potoloak hartu ezean behintzat. Eta enpresa elektriko nagusiak euren boterearekin jolasean hasten direnean neurri sinbolikoak baino ez dituzte hartzen, esaterako, CO2 isuriaren gaineko isunak handitzea eta kontsumitzaile txikien zergak murriztea. Adabakiek ordea ez dituzte sakonean ereduak dituen pitzadurak estaliko. ●

"Igoera honek arrazoi politikoak ere izan ditzake atzean"

Helburu bakarra dirua egitea duten enpresez eta antzeko putreez jositako merkatu honetan, badira bestelako ereduak duten kooperatibak, eta GoiEner horietako bat da. 2012an sortu zen, energia berriztagarria produzitu eta saltzeko helburuarekin. Bide horretan daudela adierazi dio Santi Otxoa de Eribe GoiEnerreko zuzendariak ARGIAri: "Gure helburua merkaturatzen dugun energia guk produzitzea da, iturri berriztagarrien bidez, baina oraindik lan asko dugu egiteko".

Otxoa de Eriberen esanetan, GoiEnerren helburuetariko bat pool merkatutik kanpo egotea da, eta alde biko merkaturaren egoteko ahalmena izatea; hau da, merkaturatuko duten energia guztia haiek produzitzea. Bi dira arrazoi nagusiak: lehena, independenteagoak izatea eta nahi duten prezioa ezartzea, eta bigarrena, saltzen duten energia guztia iturri berriztagarrietatik eratorria dela bermatzea.

"GoiEner hasi zenean, nik argi nuen merkaturako arauetatik atera ahal izateko era bakarria alde biko merkaturaren sartzea zela; hau da, guk proiektu kopuru handia bultzatzea,



eta horrekin gure eskaria hornitzea. Ez gaude puntu horretan, eta, tamalez, merkatu librerak jo behar dugu, eta gero hainbat estrategia erabili behar ditugu igoera handiak saihesteko", dio Otxoa de Eribe.

Argindarraren prezioaren igoeraren inguruan, faktore asko elkartu izanak merkaturak ez-tandarazi duela dio GoiEnerreko zuzendariak; besteak beste, prezioaren mugak lausotzea, gas naturalaren garestitzea eta CO2 isurketengatik isunak handitzea. Hala, diru-ekarpen handiagoko eskatu behar izan die bere bazki-

deei igoerak ekarritako likidezia arazoak konpontzeko.

Hala ere, argindarraren prezioaren gorakadak beste arrazoi batzuk ere izan ditzakeela dio GoiEnerreko zuzendariak: "Baliteke enpresa elektriko nagusiek irabazi gehiago nahi izatea; bestalde, prezioaren igoera honek arrazoi politikoak ere izan ditzake atzean, Espainiako Gobernuari presio egiteko modu bat baita. Izan ere, halako igoerak gertatzen direnean, askok gobernuak jotzen du errudun, baina merkaturak liberalizatu zenetik ezer gutxi egin dezakete".